

Eusko Jaurlaritzako Trafiko zuzendaritzaren oharra

Trafikoan eragina izango du ostegun honetan AP-8an, Behobian, traktoreen elkarretaratze batek

- Zirkulazioaren bi noranzkoetan izango du eragina 10:30etik 14:00etara

Gaur osteguna, traktore-kontzentrazio bat egitea aurreikusten da AP-8 autobidearen mugan, Behobian, eta horrek eragin zuzena izango du bi noranzkoetako trafikoan 10:30etik 14:00etara bitartean. Hori dela eta, elkarretaratzeak irauten duen bitartean, Eusko Jaurlaritzak gomendatzen du:

- Ez zirkulatzea AP-8tik Frantziarako noranzkoan.
- Inguruan zirkulatu behar izanez gero, ordezeko bideak erabiltzea: N-636, N-121 A (ñabardura batzuekin), GI20, eta abar. Inola ere ez erabili Frantziarako noranzkoko bide lasterra. Kontuan izan behar da traktore-ilara bat Nafarroatik mugaraino joango dela, eta, elkarretaratzea amaitzen denean, berriz jatorrira itzuliko direla. Horrek eragina izango du N-121 A errepideko trafikoan elkarretaratzearen joan-etorriko ibilbidean.
- Muga inguruko eskualdeei eragin diezaieke: Bidasoaldea, Oarsoaldea, Donostialdea eta Bortziria.

Bidegiko langileek eta Ertzaintzaren Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Unitateko agenteek zainduko dute zirkulazioa eta segurtasun-neurriak hartuko dituzte eraginak ahalik eta txikienak izan daitezen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak informazioa emango du mezu aldakorreko panelen, **www.trafikoa.euskadi.eus** [web-orriaren](#), [@trafikoaEJGV](#) [Twitter kontuaren](#) eta [011 telefono-zenbakiaren \(24 orduz erabilgarri dagoena\) bidez](#). Jaurlaritzak biziki gomendatzen du 10:30etik 14:00etara bitartean inguru horretan ez zirkulatzea, eta, ezinbestekoa izanez gero, arreta berezia eskaintzea Ertzaintzako eta Udaltzaingoko agenteen jarraibideei.

Nota de la dirección de Tráfico del Gobierno Vasco

Afecciones al tráfico este jueves en la AP-8, en Behobia, por una concentración de tractores

- La circulación se verá afectada en ambos sentidos de 10:30 a 14:00h.

Hoy jueves, está prevista la celebración de una concentración de tractores en la frontera de la autopista AP-8, en Behobia, con afectación directa al tráfico en ambos sentidos, entre las 10:30 y las 14:00 h. Por este motivo, durante el transcurso de la concentración el Gobierno Vasco recomienda:

- No circular por la AP-8 en dirección Francia.
- En caso de tener que circular por la zona, utilizar vías alternativas como la N-636, la N-121 A (con matices), la GI20, etc. En ningún caso, la vía rápida sentido Francia. Hay que tener en cuenta que una columna de tractores se dirigirá desde Navarra hasta la frontera y cuando finalice la concentración, de nuevo volverán a su origen con su afección al tráfico en la N-121 A en el recorrido de ida y vuelta de la concentración.
- Se pueden ver afectadas las localidades limítrofes con la frontera: Bidasoaldea, Oarsoaldea, Donostialdea y Bortziria.

Personal de Bidegi y de la Unidad Territorial de Tráfico de la Ertzaintza en Gipuzkoa vigilarán y tomarán medidas de seguridad para minimizar las afecciones a la circulación.

Asimismo, el Gobierno Vasco proporcionará información a través de los PMV (Paneles de Mensaje Variable), la página web www.trafikoa.euskadi.eus, el Twitter @trafikoaEJGV y el teléfono 011 (de atención 24 horas). El Ejecutivo Autónomo recomienda encarecidamente no circular por la zona de 10:30 a 14:00 h y, en caso de que sea imprescindible hacerlo, prestar especial atención a las indicaciones de las y los agentes de la Ertzaintza y la Policía Local.